

Villaricos.

Almeriako kostak, tipikoki mediterranearra, Iberiar Penintsulako eremurik idorrenetarikoa izatea du ezaugarri. Basamortu lurralde hauetan Carbonera izeneko herri-gune arrantzale eta industrialak nabarmentzen da. Lantegi termiko eta zementu fabriken tximinia altuak zeruertzean perfilatzen dira.

Brontze arotik, arkeologia aztarnategi garrantzitsuak aurkitu dituzte Villaricos mendizerran. Bertako biztanleek bere aberastasun mineralak erabili zituzten.

Ur azpian, lehenengo kontaktua organismo fotofilodun sakontasun gutxiko hondoak dira, ur garbi eta ondo argiztatuak, biztanle bereizgarriekin: salpak, dontzeilak, haitzetako barbarinak harea fineko eremuetan, muxarrak, har espirografoak eta alga mota ezberdinak.

Zenbat eta sakonago, kolorazioa galtzen da, eta iluntasuna handitzen da. Han, beste espezie batzuk bizi dira: epifitoz estalitako algak eta bizarginak edo itsas sugeak bezalako arrainak.

Sakontasun gutxiagoko uretan itsas izarrak ageri dira Posidonia hostoekin. Hemen aurkitzen da Mediterraneoko tamaina handiena duen bibalbioa, nakra, belaki gorri batez estalia.

Posidoniaren egitura begetala flora eta fauna bikainez lagundua da. Hauen artean *Thalassomak*, kastainolak eta salpak.

Salpa da Posidonia hostoez edo bere epitoez elikatzen den arrain gutxietako bat. Bere horzkaden aztarnak nabariak dira talde handietan batu ohi den espezie honek ohiko dituen belardietan.

Beste espezie batzuek ere, signatidoek, batzuetan altuera handia hartzen duten belardiko hostoen gainean bazkatzen dute.

Ingurune ugaritasunak espezie oso ezberdinen arteko elkarbizitza ahalbideratzen du. Algek, arrainek, belakiek, anemonek, ondoen datozkien enklabeak aukeratzen dituzte.

Giza aktibitatea ontzi baten hondakinetan islatzen da urpean. Hemen ainguraren xehetasun bat ikus dezakegu eta bere inguruan igerian ari den arrain esparido sarda bat.

Beste esparido batzuek kai eta habe hondar artean igerian ikustea ere erraza da. Haitzetako arrakaletan, txangarrak bere haginez defendatzen du bere burua.

Zuloetan babesten dira errege barbarin sardak; koral horiek hormak estaltzen dituzte, har tubikola iragazleekin batera, errege barbarin gehiago, esparidoak eta itsas sugeak.

Itsasontzien hondakinei esker, izan zuten bizitza imajina dezakegu. Hau, zamatze egitura ikusita, inguraketako arrantza ontzi bat edo nasen bidez arrantza egiten zuen ontzi bat izan zitekeen. Bere gainean hondoratutako hondarrez elikatzen den aker bat ari da igerian.

Hondakinen artean, espezie aloktono bat ageri da, *Parapristipoms octolineatum*. Atlantiar uretatik dator eta Villaricoseko hondoak kolonizatu ditu. Bertan talde txikiak osatzen ditu, Penintsulako beste puntu batzuetan gertatzen den bezala.

Sakonago, giza hondakinetatik urrunduago, beste biziera batzuek nagusitzen dira: kastainolak, gorgonia zuriak, beste gorgonia espezie batzuk, haitzuloetan ezkutatutako zeriantoak, eta aszidiak hondo hareatsuetan. Urpeko Villaricos osatzen duen mundu berezi honetatik agurtzen gaituzte.